

6. Laborategia

Ondoko ariketak Visual Basic-en idatzi:

1. Ariketa guztien zehar **bektore** bat erabiliko dugu. “**Zenbakiak**” izena izango du eta **20 zenbaki oso** gordetzeko tokia izango ditu. Botoi guztiek erabili behar dutenez, prozedura guztien kanpo (goian) deklaratu da.
2. Bektorea deklaratzean, hutsik sortzen da. Lanean hasi baino lehen, bertan datuak gorde behar dira haiekin lan egin ahal izateko. Horretarako, **Form_Load()** prozedura sortuko dugu eta hasierako balioak formula honek emango ditu:
$$\text{Zenbakiak}(i) = (i + 2 / 5) + (i \bmod 10) * 2$$
3. “**Erakutsi**” botoia: Emandakoan, bektoreko elementu guztiak PictureBox batean idatzi behar dira.
4. “**Gehi bat**” botoia: Zapaldutakoan, bektoreko elementu guztiei bat gehitu behar zaie. Botoi hau zapaldu eta gero, aurrekoari eman gehiketa ondo egin dela konprobatzeko.
5. “**Ken bat**” botoia: elementu guztiei bat kendu.
6. “**Batu**” botoia: bektore osoa batu eta emaitza irudi-kutxan erakutsi.
7. “**Aldatu**” botoia: botoi honekin batera, bi testu-kutxa sortu behar dira. Batean aldatu beharreko elementuaren indizea idatziko da, bestean eman beharreko balio berria eta, botoia sakatutakoan, idatzitako indizea duen elementuari balio berri hori emango zaio. Indizea bektore barruan dagoela konprobatu behar da.
8. “**Maximoa**” botoia: bektoreko maximoa irudi-kutxan pantailaratuko da.
9. “**Minimoa**” botoia: bektoreko minimoa irudi-kutxan pantailaratuko da.